BESTELAKO XEDAPENAK

INGURUMEN ETA LURRALDE ANTOLAMENDU SAILA

4837

EBAZPENA, 2008ko martxoaren 25ekoa, Ingurumeneko sailburuordearena, kataforesi, autoforesi eta zink-nikelaren bidez pintaketa oinarri duten azal-tratamenduen instalaziorako ingurumeneko baimen bateratua ematen duena, Gasteizko udalerrian (Araba) eta Industrias Dimo SA enpresak sustatua.

AURREKARIAK

2006ko abenduaren 27an, Francisco Javier Corcuera Molinuevo jaunak, Industrias Dimo SA enpresaren izenean eta hura ordezkatuz, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailari ingurumeneko baimen bateratua ematea eskatu zion, Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legeak xedatutakoaren arabera, Gasteizko udalerrian (Jundizko industrialdea) kataforesi, autoforesi eta zink-nikelaren bidez pintaketa oinarri duten azal-tratamenduen jarduerarako. Eskaerarekin batera, Gasteizko Udalak 2006ko uztailaren 5ean eman zuen aldeko hirigintza-txostena eta dokumentazio tekniko hau aurkeztu zituen:

– 1. liburukia: «memoria teknikoa» (2006ko abendua).

– 2. liburukia: «eranskinak» (2006ko abendua).

– 4. liburukia: «planoak» (2006ko abendua).

– 5. liburukia: «laburpen ez-teknikoa» (2006ko abendua).

Erreferentziako baimena eskatzeko orduan, Industrias Dimo SA enpresak, besteak beste, jarduerarako baimena zuen, 2000ko urtarrilaren 11koa. Baimena zinkatze eta pintaketaren bidez azal-tratamenduen jarduerarako eman zitzaion. Halaber, irekitzeko baimena zuen, 2002ko maiatzaren 23koa. Horrekin batera, enpresa sustatzaileak hondakin arriskutsuen ekoizle izateko baimena zuen, 2006ko irailaren 26koa, eta hondakin geldoen ekoizleen erregistroan inskripzioa, 2001eko irailaren 11koa eta udal-kolektorera isurtzeko baimena, 2000ko urtarrilaren 11koa (jarduerarako baimenean inplizituki zegoena), hondakinen eta hondakin-uren isurketen inguruan indarrean den araudiak xedatutakoari jarraituz.

2007ko otsailaren 19an, Ingurumenaren Kalitatearen Zuzendaritzak prozeduran eskuhartzea duten hainbat organori txostenak eskatu zizkion, ingurumen organoaren bidez proiektua jendaurrean jartzeko izapidetzea adosteari dagokionez. Zehazki, Gasteizko Udalari eta Arabako Osasun Publikoko Zuzendariordetzari txostenak eskatu zitzaizkien.

2007ko martxoaren 22an eta ekainaren 29an, ingurumen-organoak agiri osagarriak txertatzeko eskatu zion sustatzaileari, eta espedientea 2007ko azaroaren 7an osatu zen.

Ingurumeneko sailburuordeak 2007ko azaroaren 14an emandako Ebazpenaren bidez, jendaurrean jarri zen 30 egun balioduneko epean, Industrias Dimo SA enpresak sustatutako proiektua, egoki iritzitako alegazioak aurkezteko. Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian nahiz Arabako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, bietan 2007ko abenduaren 3an. Era berean, Euskal

Autonomia Erkidegoko bi egunkaritan argitaratu zen 2007ko abenduaren 2an, eta proiektuak hartuko duen eremuaren ondoko auzokide bakoitzari jakinarazpena bidali zitzaion.

Jendaurrean jartzeko izapidetze-epea bete ondoren, alegazio-idazkirik aurkeztu ez zela egiaztatu zen.

Uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 17. eta 18. artikuluetan xedatutakoa betez, 2008ko urtarrilaren 14an Ingurumenaren Kalitatearen Zuzendaritzak txostenak eskatu zizkien Gasteizko Udalari eta Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailari, espedientean ageri den emaitza jasoz.

2008ko martxoaren 5ean, Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 20. artikuluan xedatutakoa betez, espediente osoa Industrias Dimo SA enpresaren esku utzi zen, Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailak egindako ebazpen-proposamena gehituz.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 1. artikuluan xedatutakoaren arabera, lege horren xedea da atmosferaren, uraren eta lurzoruaren kutsadura saihestea edo, hori ezinezkoa denean, kutsadura hori gutxitu eta kontrolatzea; eta hori lortzeko, ingurumen osoaren babes-maila altua helburutzat harturik, kutsadura prebenitu eta kontrolatzeko sistema integratu bat ezartzea.

Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legea garatu eta burutzeko Erregelamendua onartzen duen apirilaren 20ko 509/2007 Errege Dekretuaren 3. artikuluan xedatutakoa betez, baimen honetan sartzen dira ekoizpen-elementu eta lerro guztiak; 16/2002 Legearen 1. eranskinean aipatzen ez diren arren, lege hori aplikatu beharreko esparruko jardueren instalazioetan gauzatzen dira eta jarduera horrekin zerikusia dute.

16/2002 Legearen 9. artikuluak ezartzen duena betez, ingurumeneko baimen bateratua behar dute 1. eranskinean aipatzen diren jardueraren bat garatzen duten instalazioak eraiki, muntatu, ustiatu, lekuz aldatu nahiz funtsezko beste aldaketaren bat egiteko. 11. artikuluaren arabera, baimen honen oinarrizko helburua baldintzak ezartzea da, araua, berau aplika daitekeen instalazio guztietan betetzen dela bermatzeko; horretarako, baimena emateko parte hartuko duten Herri Administrazio desberdinen artean koordinatuta izango den prozedura bat erabili nahi da, izapideak erraztu eta partikularrek ordaindu beharreko kargak gutxitzearren. Era berean, indarrean dagoen araudiaren araberako ingurumeneko administrazio-baimen guztiak egintza administratibo bakar batean bildu nahi dira. Industrias Dimo SA enpresaren kasuan, baimen hauek guztiak behar ditu: hondakin arriskutsu eta ez-arriskutsuen sortzaileak behar dituen baimenak; saneamenduko sare orokorrera isurketak egiteko baimena; eta ingurumen-izaerako beste zehaztapenen artean, atmosferaren kutsadurari dagozkionak eta lurzoruaren kutsadura prebenitu eta zuzentzeari dagozkionak. Gainera, espedientean beste administrazio eta erakunde eskudun batzuek ere parte hartu dute, aginduzko txostenak igorriz.

Uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 29. artikuluan xedatutakoaren arabera, ingurumeneko baimen bateratua emateko prozedurak Jarduera Gogaikarri, Osasungaitz, Kaltegarri eta Arriskutsuei buruzko azaroaren 30eko 2414/1961 Dekretuak aurreikusten duen jarduera sailkatuetarako udal-baimenaren prozedura ordezkatzen du; ez du ordezkatzen, ordea, udal agintaritzak emango duen behin betiko ebazpena. Ondorio horietarako, ingurumeneko baimen bateratua udal-agintarientzat loteslea izango da, baldin eta lizentzia ukatzeko bada edota neurri zuzentzaileak ezartzeko bada; baita aipatu arauaren 22. artikuluan jasotako ingurumen-alderdiei buruzko aipamena egiten bada ere. 29. artikulu horretan aipatzen denez, goiko guztiak ez ditu kaltetuko autonomia erkidego

bakoitzean jarduera sailkatuei aplikatzekoak diren gainerako arauak. Adierazitako aginduak aplikatuz, Industrias Dimo SA enpresaren ingurumeneko baimen bateratuaren baitan daude Euskal Herriko Ingurumena babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorrean aurreikusitako izapide guztiak.

Azkenik, instalazioak gehienez isur ditzakeen gai kutsagarrien balioak eta ingurumena, oro har, ahalik eta gehien babesteko ustiapenerako ezarriko zaizkion beste baldintza batzuk zehazte aldera, Ebazpen hau egiterakoan kontuan izan dira teknika erabilgarri onenak eta aplika dakiokeen alorreko legerian ezarritako neurriak eta baldintzak. Zehazki, Europako Batzordearen 2006ko abuztuko Reference Document on Best Available Techniques for the Surface Treatment of Metals and Plastics BREF agiriaren edukia kontuan hartu da. Horrez gain, araudi sektorialei dagokienez, kasu honetan aplikagarria da batez ere apirilaren 30eko 782/1998 Errege Dekretua. Honen bidez, Ontzien eta Ontzi-hondakinei buruzko apirilaren 24ko 11/1997 Legea garatu eta gauzatzeko erregelamendua onartzen da.

Espedienteko txostenak aztertu ondoren, ebazpen-proposamena sinatu eta Industrias Dimo SA enpresak sustatutako proiektuak bete beharreko baldintzak ezarri ziren.

Goian adierazitako izapideak amaitu dira, Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 20. artikuluan jasotzen den entzunaldi-izapidea bete da, eta organo hau da ingurumeneko baimen bateratu hau emateko eskuduna, aipatutako araudiaren 13. artikuluan eta Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailaren egitura organikoa ezartzen duen urriaren 25eko 340/2005 Dekretuaren 9. artikuluan ezarritakoaren arabera.

Ondorengo araudia ikusi da: Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailak 2008ko martxoaren 5en emandako ebazpen-proposamena; Euskal Herriko Ingurumena Babesteari buruzko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorra; Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legea; Ingurumenaren gaineko Eraginaren Ebaluazioari buruzko ekainaren 28ko 1302/1986 Legegintzako Errege Dekretua, maiatzaren 8ko 6/2001 Legeak aldatu zuena; Legea burutzeko araudia onartzen duen irailaren 30eko 1131/1988 Errege Dekretua; Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailaren egitura organikoa ezartzen duen urriaren 25eko 340/2005 Dekretua; Herri Administrazioen Araubide Juridikoa eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legea eta aplika daitekeen gainerako araudia, honako hau

EBATZI DUT:

Lehenengoa.– Gasteizko (Araba) udalerriko Jundizko Industrialdeko Arriurdina kaleko 8. zenbakian helbide soziala eta IFK: A-01008309 zenbakia duen Industrias Dimo SA enpresari Ingurumeneko Baimen Bateratua ematea, Gasteizko udalerrian kataforesi, autoforesi eta zinknikelaren bidez pintaketa oinarri duten azal-tratamenduen jarduerarako eta ebazpen honen bigarren atalean zehaztutako baldintzak ezarriz.

Jarduera, Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 1. eranskineko 2.6 kategorian sartuta dago, «Prozedura elektrolitiko edo kimikoaren bidez metalen eta material plastikoen azal-tratamendurako instalazioak, tratamendura bideratuta erabilitako kubeta edo lerro guztien bolumena 30 m3 baino handiagoa denean» izenekoan.

Gasteizko (Araba) udalerriko Jundizko Industrialdeko Arriurdina kaleko 8an daude enpresaren instalazioak.

Industrias Dimo SA enpresak fabrikatutako produktuen aniztasuna dela-eta, ez da produkzioa kontabilizatzen, fakturazioa baizik.

2005 urtean barrena, energia elektrikoaren kontsumoa 1.593.138 kWh izan zen.

Gas naturalaren urteko kontsumoa 9.800.540,76 TH da.

Jundizko industrialdeko Industrias Dimo SA enpresaren instalazioan, hiru estaldura-prozesu mota garatzen dira: kataforesi eta autoforesi bidezko pintaketa eta zink-nikelezko estaldura.

Kataforesi bidezko pintaketa:

Piezak koipegabetzaile kimiko, fosfatatze eta pintaketa upeletatik bata bestearen segidan pasatzen dira, eta horien artean garbiketa-posizioak tartekatzen dira.

Ultrairagazpen-prozesu bat jasaten duen pintura ateratzen da pintaketa-upeletik. Modu horretan, upelera itzultzen den pintura-frakzioa eta hurrengo bi posiziotan korrontearen kontra piezak garbitzean erabiltzen den ultrairagazpen-likidoa eskuratzen dira. Sistema horren bidez piezek arrastatutako pintura berreskuratzea lortzen da.

Prozesua bukatzeko, piezak aurretiaz lehortu eta polimerizazio-labe batean sartzen dira, eta horren bidez, piezen azken akabera erdiesten da.

Autoforesi bidezko pintaketa:

Kataforesi gisa aurrez deskribatutako prozesuaren oso antzekoa da, ondorengo aldaeretan salbu:

– Aurretiazko tratamenduan, ez da fosfatatzerik gauzatzen.

– Piezak pintaketa-upelean murgilduz pintatzen dira.

– Pintaketaren ondoren, piezek finkatze-prozesu bat jasaten dute, piezak erreaktibo finkatzaile bateko bainu batean murgilduz.

Zink-nikelezko instalazioa:

Piezek murgiltzearen bidez estaldura elektrolitikoko prozesua jasaten dute, eta prozesu horren bidez, piezen gainean zink eta nikelezko aleazioa aplikatzen da.

Prozesu honetan funtsezkoa da zink-nikelezko bainuen aurretik pieza prestatzea; hori dela-eta, koipegabetzaile-mota desberdinak eta garbiketak oso garrantzitsuak dira.

Prozesua materialak bastidorean kargatzearekin abiatzen da. Ondoren, koipegabetzaile kimikora pasatzen dira, lehenik aspertsioz eta ondoren, murgilketaz. Bien funtzioa piezei itsatsita dauden koipeak, taladrinak eta olioak ezabatzea da (aurreko mekanizazio-prozesuetatik sortutakoak). Prozesu hauek 40 eta 90 ºC arteko tenperaturetan gauzatzen dira.

Hurrengo urratsa piezak garbitzea da.

Jarraian, piezak I eta II azidoen desugertzeetan sartzen dira, piezetan itsatsitako metal oxidoen eta elementuen hondarrak ezabatze aldera. Prozesu hau 20 eta 30 ºC arteko tenperaturan gauzatzen da.

Piezak garbitu egiten dira berriz ere (garbiketa), koipegabetze elektrolitikoko prozesua jasaten dute eta ondoren, berriz ere garbitzen dira.

Zink-nikeleztatzea upel elektrolitikoan gauzatzen den prozesu alkalinoa da. Zinka eta nikela bainuan disolbatuta daude. Aplikatu beharreko tentsioa eta korrontea zinkatze-motaren eta estali beharreko pieza-moten araberakoak izango dira.

Arrasteko metalak ahalik eta gehien berreskuratzeko xedearekin, piezak aurrezkailu– edo berreskuratze-upelean sartzen dira. Upel honetan piezak garbitzen dira, baina zirkuitu itxian lan egiten du. Beraz, piezek arrastatzen duten eta upel honetan jartzen den zinka eta nikela bainuari gehitzen zaizkio, beharrezkoa denean (denbora luzez bainuaren konposizio egokia mantendu ahal izateko).

Ondoren, piezak berriz ere garbitzen dira eta aurrepasibatze batean sartzen dira (% 1ean dagoen azido sulfurikoko bainua), beranduago pasibatzean sartu ahal izateko. Kromato-geruza baxukoa edo altukoa izan daiteke pasibatzea, bezeroaren eskakizunen arabera.

Pasibatzeen ondoren egiten diren garbiketak ez dira zuzenean sareko ura erabiliz egiten, aurretiaz ioi-elkartrukeko zutabeetan tratatutako ura erabiliz baizik (kationikoak eta anionikoak). Horrela, uraren ezaugarriek piezen akaberako kalitatean eragin negatiboak izatea saihesten da.

Deskargatu aurretik, piezek lehortze edo estaldura bereziak jasaten dituzte eta piezen akabera-moten arabera egiten da hori.

Lerro honek isurtzeak arazteko ekipoa (gas-garbigailua) eta lurrungailua (prozesuan sortutako hondakin arriskutsuen –garbiketako urak– bolumena murrizteko ekipoa) ditu.

Atmosferara isurtzen duten iturriak ondorengoak dira:

a) Prozesua: kataforesi bidez aplikatutako pintura lehortzea:

– 1. fokua: kataforesia (I bastidorea). I polimerizazioa.

– 2. fokua: kataforesia (I bastidorea). II polimerizazioa.

– 3. fokua: kataforesia (I bastidorea). III polimerizazioa.

– 4. fokua: kataforesia (I bastidorea). IV polimerizazioa.

– 6. fokua: kataforesia autoforesia polimerizazioa.

– 9. fokua: kataforesi jarraikia polimerizazioa.

b) Prozesua: pintaketa:

– 5. fokua: kataforesia (I bastidorea). Hautsezko pintaketa.

c) Prozesua: pintaketa aurreko piezen garbiketa:

– 7. fokua: kataforesi jarraikia koipegabetzea.

– 8. fokua: kataforesi jarraikia fosfatatzea.

d) Prozesua: piezen pintura ezabatzea:

– 10. fokua: desugertzea.

e) Prozesua: bainuak berotzeko lurruna sortzea.

– 11. fokua: lurrun-galdara.

– Prozesua: koipegabetze kimikoa eta elektrolitikoa.

– 12. fokua: zink-nikel lerroa.

Enpresak hondakin-uren sare bereizlea du eta isurketa-puntu bakar baten bidez husten da udaleko kolektorera. Hondakin-uren fluxuak ondorengoak dira:

– 1. fluxua: hondakin-ur sanitarioak: instalazioko langileen komunak.

– 2. fluxua: euri- eta hondakin-urak: nabearen teilatuetatik jaisten diren urak biltzen dituzte.

– 3. fluxua: industriako hondakin-urak: estaldura elektrolitikoko hiru instalazioetakoak.

Industrias Dimo SA enpresak aurkeztutako proiektuak, besteak beste, teknika erabilgarri onenak (TEO) izan daitezkeen ondorengo neurriak barneratzen ditu:

Kudeaketarako TEOak,

Garbiketei, atxikipen-kubetei eta araztegirako kanaletei buruzko prozedurak eta jarraibideak daude, eta baita praktika eragileen inguruko prozedura eta jarraibideak ere. Barneko benchmarking-a egiten da (adierazleak datu historikoen bidez alderatzea). Kontsumoak hornitzaileen orriekin alderatzen dira. Tenperatura denbora errealean aritzen den sistema baten bidez kontrolatzen da; gainerako parametroak, berriz, eskuz kontrolatzen dira.

Diseinua, muntaia eta eragiketen TEOak,

Biltegiratzeak legeztatuak daude. Hilean behin produktu galkorren iraungitze-data berrikusten da, horien FIFOa bermatuz. Ontzietako batzuk hornitzaileak berrerabili egiten ditu. Hornidurako ontziak kontsumoaren arabera aukeratzen dira.

TEO eragileak,

FIFO biltegiratze-sistema dute. Pieza guztiak estalpean gordetzen dira prozesuarena ez den bestelako nabe batean, erasoa minimizatuz. Piezen arabera korrosioaz eta kolpeez babesten duten enbalajeak egiten dira, bezeroak horrela eskatuz gero. Pieza bakoitzarentzako paketatzeko pautak daude. Langileek prestakuntza egokia dute. Segurtasuneko fitxa guztiak produktu kimikoen biltegiratzean eta produkzio-lerroetan daude. Bastidoreen diseinua piezak erori eta arrastatzea saihesteko moduan egiten dira. Koipegabetze-bainuak turbulentzia hidrauliko baten bidez astintzen dira, eta garbiketa-bainu batzuk airearen bidez.

Sarreren kudeaketari buruzko TEOak: energia,

Artezteko makinak eta sistema elektrikoarekin kontaktuak aldizka mantentzen dira. Eraginkortasun energetikoaren irizpidea kontuan hartzen da ekipo berriak erosteko orduan. Bainuak beroketa elektrikoaren eta lurrunezko hodibihurren bidez berotzen dira. Laneko osasuna dela-eta, erauzketak etengabe funtzionatzen du, kataforesi-lerroa abian denean. Bainuen konposizioa optimizatua dago, eta hornitzaileak ezarritako tartean lanean ari da beti. Andelak beroarengandik isolatuta daude. Instalazioak hotzeko ekipo bat du zirkuitu itxian.

Sarreren kudeaketari buruzko TEOak: ura eta materialak,

Galdarako ura deskaltzifikatu egiten da, eta garbiketa batzuetan ioien trukagailu batetik pasatzen da. Koipegabetze- eta fosfatatze-garbiketak ez dira birsortzen. Zenbatzaileak, emari-neurgailuak eta errotametroak ditu instalazioko uraren kontsumoa kontrolatu ahal izateko. Koipegabetze-garbiketa berrerabili egiten da.

Arraste eta isuriak murrizteko TEOak,

Prozesuak euren artean bateragarriak izatea kontuan hartu da; horrela, aspertsio bidezko koipegabetzea murgiltze bidezkoarekin bateratzea lortu da. Disoluzioak egunero kontrolatzen dira, hornitzaileak adierazitako baldintza onenetan mantendu ahal izateko. Bastidoreak diseinatzeko orduan arrastea gutxienekoa izatea kontuan hartzen da.

Urberritzeko TEOak,

Enpresak korrontearen kontra elkarren hurreneko garbiketak ditu. Pintura ultrairagazpenaren bidez berreskuratzen da. Etapa bakoitzaren osteko xukatzeko eta garbitzeko denborak automatizatuak daude. Bainu batzuk garbiketa soilak izaten dituzte.

Lehengaiak eta prozesuak ordezkatzeko TEOak,

Parametro kritiko guztiak identifikatuta daude eta kontrolerako planaren bidez kontrolatzen dira. Disoluzioak mantentzeko ondorengo teknikak erabiltzen dira: iragazketa eta elektrolisia; gainera, aurki deskarbonatatzaile bat instalatuko da. Fosfatatzearen parametro kritikoen kontrola 4 orduro. Bainuaren iragazketa jarraikia.

Koipegabetzeko TEOak,

Hainbat piezen kasuan, garbiketako metodo fisikoak erabiltzen dira (bibraraztea, granailatzea, eskuzko garbiketa, etab.). Alkalinotasun baxuko koipegabetzea erabiltzen da; emultsio ezegonkorraren teknika erabiltzen da. Bainuen kontzentrazioa egunero kontrolatzen da, parametroen barruan mantenduz. Olioa eskuz eta automatikoki erretiratzen da astero. Koipegabetzea seriean doazen bi etapen konbinazioz osatuta dago (elkarren hurreneko koipegabetzea). Olioen bereizlea dago.

Desugertzeko TEOak,

Desugertze-upel bakarra dago. Desugertzea oso gutxitan erabiltzen da, dialisia aplikatzea errentagarria izan dadin.

Hondakin-uren tratamendurako TEOak,

Fluxuak identifikatuta daude eta araztegia elikatzeko bitarteko andelak daude. Azidoak, alkalinoak eta diluituak (garbiketak) bereizten dira. Azidoak eta alkalinoak araztegira dosifikatzen dira eta diluituak, berriz, kargen bidez. Araztegiak hidroxidoen prezipitazio-prozesu bat du eta bertan, polimero organikoak malutatzaile bezala erabiltzen dira. Poliakrilamidak eta kloruroak gehitzen dira eta fluoruroak eta fosfatoak prezipitatzen dira. Bestalde, jalkitzea eta iragazketa-prozesua ditu. PH-a eta Rédoxa kontrolatzen dira. Astero barruko analisiak egiten ditu (pH, eroankortasuna, OEK, Zn, Ni, Mn) eta hiru hilean behin kanpokoak, araztegiko enpresaren bidez.

Isurtze atmosferikoak murrizteko TEOak,

Ez da gehigarririk erabiltzen. Koipegabetze-bainuek babesteko estalkiak eta aire erauzketak dituzte. Instalazioek 24 orduz jarraian funtzionatzen dute 6 egunetan.

Hondakinen TEOak,

Erremintak optimizatuz, arrasteak murriztea.

Lurpeko uren babeserako eta kokapenak uzteko TEOak,

Materialak definitutako guneetan kokatzen dira. Eragiketa kritikoen jarraibideak daude. Instalazioetan erabilitako produktu kimiko guztien segurtasuneko fitxak gordetzen dira. Erabilitako lehengaien zerrendak eguneratuta gordetzen dira.

Bigarrena.– Honako baldintzak eta eskakizunak ezartzea Industrias Dimo SA enpresak Gasteizko udalerrian kataforesi, autoforesi eta zink-nikelaren bidez pintaketa oinarri duten azal-tratamenduen jarduera ustiatzeko:

A) Administrazioarekiko harremanez arduratuko den pertsonaren gainean Ingurumen Sailburuordetzari eman dizkion datuetan aldaketarik balego, Industrias Dimo SA enpresak aldaketa horien berri emango du.

B) Neurri babesle eta zuzentzaileak sustatzaileak Ingurumen Sailburuordetza honetan aurkeztu dituen agirietan aurreikusita bezala burutuko dira, indarrean dagoen araudiaren arabera eta ondorengo ataletan ezarritakoari jarraituz:

B.1.– Instalazioaren funtzionamendurako baldintza orokorrak.

B.1.1.– Airearen kalitatea babesteko baldintzak.

B.1.1.1.– Baldintza orokorrak.

Industrias Dimo SA instalazioa ustiatzean atmosferara egingo diren isurtzeek ez dituzte Ebazpen honetan ezarritako isurtzeko muga-balioak gainditukо.

Prozesuan zehar atmosferara isurtzen den gai kutsatzaile oro bildu eta ihesbide egokienean zehar kanpora bideratuko da, behar denean, gai kutsatzaileen ezaugarrien arabera diseinatutako gasak arazteko sistema batetik igaro ondoren.

Arau orokor hori bete beharrik ez dute izango gai kutsatzaileak mugarik gabe isuri eta horiek biltzea teknikoki edo ekonomikoki bideragarria ez denean, edota ingurunean kalte urria eragiten dutela egiaztatzen denean.

Neurriak hartuko dira ustekabean gai kutsatzailerik ez botatzeko, eta botatzen direnak giza osasunerako nahiz gizartearen segurtasunerako arriskutsuak izan ez daitezen. Gas-efluenteak tratatzeko instalazioak behar bezala eraiki, ustiatu eta mantenduko dira, efluenteen tenperatura– eta konposizio-aldakuntzei modu eraginkorrean aurre egiteko. Era berean, ahalik eta gehien murriztuko dira instalazio horiek gaizki dabiltzan edo geldirik dauden aldiak.

B.1.1.2.– Fokuak identifikatzea. Katalogazioa.

Industrias Dimo SA instalazioak ondoko fokuak ditu, indarrean dagoen araudiaren arabera katalogatuta:

Foku zk.	Foku-kodea	Isurtze-fokuaren izena	Garaiera (m)	Diametroa Barrukoa (m.)	Katalogazioa		UTM koodernatuak	
					Taldea	Epigrafea	X	Y
1	1002284-01	Kataforesia (I bastidorea). I polimerizazioa	11	0,31	B	2.12.1	522.316	4.742.929
2	1002284-02	Kataforesia (I bastidorea). II polimerizazioa	11	0,31	B	2.12.1	522.316	4.742.926
3	1002284-03	Kataforesia (I bastidorea). III polimerizazioa	11	0,31	B	2.12.1	522.316	4.742.924
4	1002284-04	Kataforesia (I bastidorea). IV polimerizazioa	11	0,31	B	2.12.1	522.316	4.742.921
5	1002284-05	Kataforesia (I bastidorea). Hautsezko pintaketa	2	0,25	B	2.12.1	522.316	4.742.934
6	1002284-06	Kataforesia Autoforesia Polimerizazioa	12	0,31	B	2.12.1	522.331	4.742.925
7	1002284-07	Kataforesi jarraikia koipegabetzea	12	0,46	C	3.12	522.342	4.742.892
8	1002284-08	Kataforesi jarraikia fosfatatzea	12	0,67	C	3.12	522.343	4.742.899
9	1002284-09	Kataforesi jarraikia polimerizazioa	12	1,00	B	2.12.1	522.341	4.742.924
10	1002284-10	Desugertzea	12	0,27	C	3.12	522.336	4.742.935
11	1002284-11	Lurrun-galdara	11	0,46	C	3.1.1	522.340	4.742.957
12	1002284-12	Zink-nikel lerroa			B	2.12.1.	522.349	4.742.940

Sustatzaileak 12. fokuaren garaiera eta barruko diametroa aurkeztu beharko ditu.

B.1.1.3.– Isurtzeko muga-balioak.

a) Atmosferara isurtzen diren gai poluitzaileek ondorengo balioak ez gainditzeko moduan ustiatuko da instalazioa:

Fokua	Substantziak	VLE
1	Nitrogeno oxidoak (NO_x)	300 ppm
	Karbono monoxidoa (CO)	500 ppm
	Karbono Organikoaren Guztizkoa (KOG)	100 mgC/Nm^3
	Guztizko partikulak (PT)	30 mg/Nm^3
2	Nitrogeno oxidoak (NO_x)	300 ppm
	Karbono monoxidoa (CO)	500 ppm
	Karbono Organikoaren Guztizkoa (KOG)	100 mgC/Nm^3
	Guztizko partikulak (PT)	30 mg/Nm^3
3	Nitrogeno oxidoak (NO_x)	300 ppm
	Karbono monoxidoa (CO)	500 ppm
	Karbono Organikoaren Guztizkoa (KOG)	100 mgC/Nm^3
	Guztizko partikulak (PT)	30 mg/Nm^3
4	Nitrogeno oxidoak (NO_x)	300 ppm
	Karbono monoxidoa (CO)	500 ppm
	Karbono Organikoaren Guztizkoa (KOG)	100 mgC/Nm^3
	Guztizko partikulak (PT)	30 mg/Nm^3
5	Guztizko partikulak (PT)	30 mg/Nm^3
6	Nitrogeno oxidoak (NO_x)	300 ppm
	Karbono monoxidoa (CO)	500 ppm
	Karbono Organikoaren Guztizkoa (KOG)	100 mgC/Nm^3
	Guztizko partikulak (PT)	30 mg/Nm^3
7	Karbono Organikoaren Guztizkoa (KOG)*	75 mgC/Nm^3
	Guztizko partikulak (PT)	30 mg/Nm^3
8	Guztizko partikulak (PT)	30 mg/Nm^3
9	Nitrogeno oxidoak (NO_x)	300 ppm
	Karbono monoxidoa (CO)	500 ppm
	Karbono Organikoaren Guztizkoa (KOG)	100 mgC/Nm^3
	Guztizko partikulak (PT)	30 mg/Nm^3
10	Karbono Organikoaren Guztizkoa (KOG)	75 mgC/Nm^3
	Guztizko partikulak (PT)	30 mg/Nm^3
11	Nitrogeno oxidoak (NO_x)	300 ppm
	Karbono monoxidoa (CO)	500 ppm
12	Guztizko kromoa (Cr_T)	0,2 mg/Nm^3 5 g/h bada
	Karbono Organikoaren Guztizkoa (KOG)*	75 mgC/Nm^3
	SO_x SO_2 bezala neurtua	10 mg/Nm^3
	Nitrogeno oxidoak (NOx)	500 mg/Nm^3
	Guztizko partikulak (PT)	30 mg/Nm^3
	Azido klorhidrikoa (HCl)	30 mg/Nm^3

*Ebazpen honetako C.1.b puntuan adierazten den moduan BKEek egindako atmosferarako neurketen txostenean lortutako emaitzen arabera, kutsatzaile honi ezarri beharreko muga aztertuko da.

Gainazalak garbitzeko jarduerarako isurtze barreiatuaren muga-balioa (disolbatzaileen sarrera-portzentajea) % 20 izango da; estaltzeko jarduerarako, berriz, % 25.

Balio horiek baldintza hauek dituzte: 273 K-eko tenperatura, 101,3 kPa-eko presioa eta gas lehorra.

b) Neurtutako parametroek ez dituzte isurtzeko muga-balioak gainditu arauz egingo diren aldizkako ikuskaritzetan (ordubeteko hiru neurketa, gutxienez) zortzi ordutan zehar neurtuta. Neurketa-tolerantzia gisa, kasu guztien % 25ean gainditu ahal izango da muga-balioa, % 40a gainditzen ez duen zenbatekoa baldin bada. Tolerantzia hori gainditu gero, neurketa-aldia astebetez luzatuko da, eta aldi honetako tolerantzia global gisa, kasuen % 6an gehienez onar daitezkeen mailak gainditzea onartuko da, % 25a gainditzen ez duen zenbatekoa denean. Tolerantzia horiek

izanda ere, gai kutsatzaileak isurtzen dituen fokuaren eraginpeko zonaldean ezin izango dira inoiz higienikoki onar daitezkeen balioak gainditu.

KOHei (KOG gisa neurtuak) dagokienez, ez dituzte isurtzeko muga-balioak gainditu arauz egingo diren aldizkako ikuskapenetan (gutxienez ordubeteko hiru neurketa), neurketen batez bestekoak isurtzeko muga-balioak gainditzen ez baditu eta ordubeteko neurketetako batek ere 1,5 baino handiagoa den faktorean isurtzeko muga-balioak gainditzen ez baditu.

B.1.1.4.– Gasak biltzeko eta husteko sistemak.

Fokuetako hondakin-gasak kanporatzeko tximiniak ez dira egongo B.1.1.2. atalean ezarritako goreneko kotatik behera. Tximiniek, industriak atmosferan sortzen duen kutsadura saihestu eta zuzentzeari buruzko Industria Ministerioaren 1976ko urriaren 18ko Aginduan ezarritako baldintzak beteko dituzte; horrela, besteak beste, laginak hartzeko puntura sarbide seguruak eta errazak jarriko dituzte.

Zehazki, laginak hartzeko aurreikusitako zuloen kokapenari eta ezaugarriei dagokienez, gas-fluxuak laginketa-puntutik neurketa-puntura bitartean, bere norabidean zehar nahiz aurkakoan, edozein perturbazio izan dezakeen gunera bitarteko distantziek (L1 eta L2 parametroak) 1976ko urriaren 18ko Aginduaren III. eranskinean xedatutakoa beteko dute. L1 ≥ 8D eta L2 ≥ 2D distantziak betetzen ez diren fokuetarako inoiz ez dira L1 < 2D eta L2 < 0,5D balioak onartuko. Kasu horietan, neurketen txostenean laginketa-planoaren baliotasuna justifikatzea eskatuko da.

Isurtze barreiatuak murrizteko, isurtzeak biltzeko eta husteko sistema guztien mantentze-lan zuzenak egingo dira, eta gainera, beste jarduera hauek burutuko dira: instalazioak egunero eta astero garbitzea, kanpoko ateak ixtea, pabiloia orokorrean ixtea, etab., isurtze horien minimizatzea bermatzeko. Aipatutako informazio guztia agiri honen D.3 ataleko prebentziozko mantentze-lanen eskuliburuan jaso eta erregistratuko da.

B.1.2.– Saneamendu-sarera isurtzeko baldintzak.

B.1.2.1.– Isurketen sailkapena, jatorria, ingurune hartzailea eta kokapena.

Isurketa sortzen duen jarduera mota nagusia: metalen tratamendua eta estaldurak.

Jarduera-taldea: gainazalen tratamendua.

Mota-taldea-EJSN: 3-16-2851.

Isurketa-puntua	Hondakin-ur mota	Isurketaren jatorria	Ingurune hartzailea
PV1	Industrialak	Produkzio-lerro bakoitzeko produktu kimikoen eta irakuzketen biltegiratze-guneko balizko isuriak, ur sanitarioak eta euri-urak	Udal-kolektorea

Sustatzaileak isurketa-puntuaren UTM koordenatuak adierazi behar ditu.

B.1.2.2.– Gehienez isuri daitezkeen emari eta bolumenak.

Sustatzaileak industriako hondakin-uren isurketari buruzko ondorengo datuak adierazi beharko ditu: orduko puntako emaria, eguneko gehienezko bolumena eta urteko gehienezko bolumena.

B.1.2.3.– Isurtzeko muga-balioak.

Azken isurketak Gasteizko udalerriko etxekoak ez diren isurketen Udal Ordenantzan ageri diren mugak eta baldintzak bete beharko ditu, Erakunde horrek ezar ditzakeen zehaztapen, aldaketa edo salbuespenak barne eta ondorengo muga gehigarriekin batera:

– Guztizko kromoa (CrTOTAL): 1 mg/l.

– Nikela (Ni): 1,5 mg/l.

Ezingo dira diluzio-teknikak erabili isurtzeko muga-balioak lortzeko.

B.1.2.4.– Araztu eta husteko instalazioak.

Ondorengo instalazioak dituen araztegia dago:

1.– Irakuzketa eta kontzentratuen metaketa-blokea.

2.– Koagulatzailea prestatzeko blokea.

3.– Erreaktiboen blokea.

4.– Zianuroak neutralizatzeko blokea.

5.– Hondakin-urak arazteko blokea.

6.– Iragazketa-blokea.

PH-neurgailua eta emari-neurgailua izango dira, erregistro jarraikiarekin.

B.1.3.– Plantan sortutako hondakinak egoki kudeatzen direla bermatzeko baldintzak.

Instalazioetan sortzen diren hondakin guztiak hondakinei buruzko apirilaren 21eko 10/1998 Legean eta aplika dakiekeen berariazko gainerako araudian xedatutakoari jarraituz kudeatuko dira; hondakinak karakterizatu egin beharko dira euren izaera zehaztu eta helburu egokiena erabakitzeko.

Espresuki debekatuta dago sortzen diren tipologia desberdineko hondakinak elkarrekin edo beste hondakin nahiz efluente batzuekin nahastea; hondakinak jatorritik bertatik bereiziko dira eta horiek bildu eta biltegiratzeko bide egokiak jarriko dira, nahasketa saihesteko.

Hondakinen kudeaketari buruzko printzipio hierarkikoei jarraituz, hondakin oro baliotu egin behar da eta horretarako balioztagune baimendu batera eraman behar dira. Hondakinak ezabatu ahal izango dira, baldin eta horiek baliotzea teknika, ekonomia edota ingurumen aldetik bideragarria ez dela behar bezala egiaztatzen bada. Birsortzea eta berrerabiltzea lehenetsiko dira baliotzeko beste modu material edo energetikoren aurretik.

Era berean, hondakinak tratatzeko Euskal Autonomia Erkidegoan instalazio baimenduak badaude, instalazio horietara bidaliko dira, autosufizientzia- eta gertutasun-printzipioei jarraituz.

Baimendutako zabortegian ezabatzea aurreikusita dagoen hondakinen karakterizazioa, Kontseiluaren 2002ko abenduaren 19ko 2003/33/EE Erabakiarekin bat etorriz gauzatuko da. Erabaki horren bidez, hondakinak zabortegian hartzeko irizpideak eta prozedurak ezartzen dira. Bestela, Erabaki hori garatzeko Euskal Autonomia Erkidegoan onartutako jarraibideekin bat etorriz gauzatuko da.

Hondakinak biltzeko eremuek lurzoru estankoa izan beharko dute. Egoera fisiko likidoan edo oretsuan dauden edo oso bustita daudelako isurketak edo lixibiatuak sor ditzaketen hondakinen kasuan, horiek biltzeko kubeta edo sistema egokiak jarriko dira ezbeharrean gerta daitezkeen isurketak kanpora irten ez daitezen. Hondakina hautsa bada, euri-urarekin kontakturik izan dezan edo haizeak arrasta dezan saihestuko da; behar izanez gero, estali egingo da.

Hondakinek desagertu, galdu edo ihes egingo balute, berehala jakinaraziko da gertatutakoa Ingurumen Sailburuordetzan eta Gasteizko Udalean.

B.1.3.1.– Hondakin arriskutsuak.

Sustatzaileak adierazitako hondakin arriskutsuak honako hauek dira:

• 1. Prozesua: «Pintaketa, zink-nikeleztatzea».

– 1. hondakina: «Kataforesiaren hondakina».

Identifikazioa: A01008309/100008742/1/1.

Hondakinaren kodea: Q8//D9//L12//C41/43//H5//A243//B3258.

EHZ kodea: 080111.

Urtean sortutako kantitatea: 6.250 kilogramo.

Pintaketa-upelak urtero hustu eta garbitzerakoan sortzen da; pintura-hondarrak dira.

Hondakinarentzat identifikatutako edukiontzian jasotzen da sortzen den postuan edo postuetan; behin bete ondoren, hondakinen biltegira eramaten da baimendutako kudeatzaileak jasotzeko.

– 2. hondakina: «Laka».

Identifikazioa: A01008309/100008742/1/2.

Hondakinaren kodea: Q5//D9//L12//C41//H5//A243//B3258.

EHZ kodea: 080111.

Urtean sortutako kantitatea: 800 kilogramo.

Pintaketa-upelak urtero hustu eta garbitzerakoan sortzen da; laka-hondarrak dira.

Hondakinarentzat identifikatutako edukiontzian jasotzen da sortzen den postuan edo postuetan; behin bete ondoren, hondakinen biltegira eramaten da baimendutako kudeatzaileak jasotzeko.

– 3. hondakina: «Bainu alkalinoak».

Identifikazioa: A01008309/100008742/1/3.

Hondakinaren kodea: Q8//D9//L34//C24//H5/14//A243//B3258.

EHZ kodea: 110111.

Urtean sortutako kantitatea: noizean behin.

Koipegabetze-upelak urtero hustu eta garbitzerakoan sortzen da. Izaera basikoa duten garbiketa-urak dira.

Koipegabetzearen kontzentratuak eta upelen garbiketa-urak araztegian tratatu ohi badira ere, tratamendu-bolumena gaindituz gero, sortzen diren puntutik zuzenean erretiratzen dira baimendutako kudeatzaileari eramateko.

– 4. hondakina: «Karbonatoak».

Identifikazioa: A01008309/100008742/1/4.

Hondakinaren kodea: Q9//D9//S31//C24//H13//A243//B3258.

EHZ: 060205.

Urtean sortutako kantitatea: 10 tona.

Zink-nikeleztatze bainuaren deskarbonatazio-eragiketetan sortzen da. Izaera basikoa duten gatz solidoak dira.

Hondakinarentzat identifikatutako edukiontzian jasotzen da sortzen den postuan edo postuetan; behin bete ondoren, hondakinen biltegira eramaten da baimendutako kudeatzaileak jasotzeko.

• 2. Prozesua: «Hondakin-uren tratamendua».

– 1. hondakina: «Araztegiko lohiak».

Identifikazioa: A01008309/100008742/2/1.

Hondakinaren kodea: Q9//D9//P27//C24/7/5//H13//A243//B0006.

EHZ kodea: 190205.

Urtean sortutako kantitatea: 82,45 tona.

Bainuen araztegiko instalazioan eta pintaketa eta zink-nikeleztatze prozesutik datozen garbiketa-uretan sortzen da. Zinka, nikela eta bestelako substantzia arriskutsuak dituzte lohiak dira.

Hondakinarentzat identifikatutako edukiontzian jasotzen da; zuzenean erretiratzen da biltegiratzeko gunetik kudeatzaile baimenduari bidaltzeko.

• 3. Prozesua: «Zerbitzu orokorrak».

– 1. hondakina: «Ekipo ofimatikoak».

Identifikazioa: A01008309/1000087425/3/1.

Hondakinaren kodea: Q14//R13//S40//C6/18//H6/14//A243//B0019.

EHZ kodea: 160213.

Urtean sortutako kantitatea: hondakin puntuala.

Ekipo informatikoak birjartzeko eragiketetan sortzen da. Hondakinarentzat identifikatutako gunean jasotzen da, hondakin arriskutsuen biltegian.

– 2. hondakina: «Kutsatzailez bustitako xurgatzaileak eta iragazkiak».

Identifikazioa: A01008309/100008742/3/2.

Hondakinaren kodea: Q5//D15//S40//C23/24/51//H5/14//A243//B0019.

EHZ kodea: 150202.

Urtean sortutako kantitatea: 500 kilogramo.

Xurgatzaileak eta ehunak biltzean sortzen da; hidrokarburoz, pinturaz edo beste kutsatzaileez bustitako material xurgatzailea eta iragazkiak dira.

Hondakinarentzat identifikatutako bidoian jasotzen da sortzen den postuan edo postuetan. Behin bete ondoren, hondakinen biltegira eramaten da.

– 3. hondakina: «Metalezko ontzi hutsak».

Identifikazioa: A01008309/100008742/3/3.

Hondakinaren kodea: Q5//R4//S36//C41/43//H5//A243//B0019.

EHZ kodea: 150110.

Urtean sortutako kantitatea: 634 kilogramo.

Ontzi hutsak biltzean sortzen da; pinturak edo bestelako kutsatzaileak eduki dituzten metalezko ontziak dira.

Hondakinarentzat identifikatutako gunean jasotzen da, hondakin arriskutsuen biltegian.

– 4. hondakina: «Plastikozko ontzi hutsak».

Identifikazioa: A01008309/100008742/3/4.

Hondakinaren kodea: Q5//R3//S36//C23/C24//H5//A243//B0019.

EHZ kodea: 150110.

Urtean sortutako kantitatea: 10,65 tona.

Ontzi hutsak biltzean sortzen da; produktu azidoak eta basikoak eduki dituzten plastikozko ontziak dira.

Hondakinarentzat identifikatutako gunean jasotzen da, hondakin arriskutsuen biltegian.

a) Hondakin arriskutsuak biltzeko sistemak bereiziak izango dira, duten tipologia dela-eta, isuriren bat gertatuz gero, nahasi, arriskutsuago bihurtu edo kudeaketa zaildu dezaketen kasuetan.

b) Hondakin arriskutsuak jasotzen dituzten ontziek, hondakin toxiko eta arriskutsuei buruzko maiatzaren 14ko 20/1986 Oinarrizko Legea betearazteko erregelamendua onartzen duen uztailaren 20ko 833/1988 Errege Dekretuak 13. artikuluan ezarritako segurtasun-arauak kontuan izan beharko dituzte, eta itxita egongo dira kudeatzaileak jaso arte, isuri edo lurrundu ez daitezen.

c) Aurreko atalean aipatzen diren ontziek etiketatuta egon beharko dute, eta etiketak argia, irakurtzeko modukoa eta ezabaezina izan beharko du; etiketa 1988ko uztailaren 20ko 833/1988 Errege Dekretuak 14. artikuluan horretarako adierazitako jarraibideen araberakoa izango da.

Hondakin arriskutsuak gordetzeko denbora ezingo da 6 hilabetetik gorakoa izan.

d) Hondakinak kudeatzaile baimenduaren instalazioetara eraman aurretik, nahitaezko baldintza izango da agiri baten bidez egiaztatzea kudeatzaile baimendu horrek hondakinak onartu dituela. Agiri horretan hondakinak onartzeko baldintzak ezarriko dira, eta egiaztatu egingo da tratatu beharreko hondakinaren ezaugarriak administrazio-baimenarekin bat datozela. Agiri hori

Ingurumen Sailburuordetzara bidaliko da hondakina lehenengoz erretiratu aurretik eta, behar izanez gero, hondakin-kudeatzaile berri batengana eraman aurretik. Beharrezkoa izanez gero, karakterizazio xehatua egingo da, proposatutako tratamenduaren egokitasuna egiaztatzeko. Hala badagokio, arrazoitu egin beharko da proposatutako kudeaketa-modua Ebazpen honetako hondakinen kudeaketari buruzko printzipio hierarkikoei egokitzen zaiela.

e) Hondakin arriskutsuak eraman aurretik eta, hala badagokio, araudian ezarritako aurretiazko jakinarazpena egin ondoren, kontrolerako eta jarraipenerako agiria bete beharko da. Agiri horren zati bat garraiolariari emango zaio, zamarekin batera jatorritik helmugaraino eraman dezan. Industrias Dimo SA enpresak artxibategian erregistratu eta gorde beharko ditu onarpen-agiriak eta kontrolerako zein jarraipenerako agiriak, edo horien agiri ofizial baliokideak, aginduzkoak direnean, bost urtean gutxienez.

f) Egiaztatu egin beharko da hondakin arriskutsuak kudeatzaile baimenduaren instalazioetara eramateko erabiliko den garraiobideak horrelako gaiak garraiatzeko indarrean dagoen legerian ezarritako baldintzak betetzen dituela.

g) Tresna elektriko eta elektronikoen hondakinak, horien artean hodi fluoreszenteak, tresna elektriko zein elektronikoei eta horien hondakinen kudeaketari buruzko otsailaren 25eko 208/2005 Errege Dekretuan ezarritakoaren arabera kudeatuko dira.

h) Industrias Dimo SA enpresak PKB eduki dezaketen gailuak dituenez, nahitaez bete behar ditu poliklorobifeniloak, polikloroterfeniloak eta horiek dituzten gailuak ezabatu eta kudeatzeko neurriak ezartzen dituen abuztuaren 27ko 1378/1999 Errege Dekretuaren baldintzak, eta errege dekretu hori aldatzen duen otsailaren 24ko 228/2006 Errege Dekretua.

i) Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2000ko ekainaren 29ko 2037/2000 EE Arautegian ozono-geruza agortzen duten substantzia batzuk zehazten eta arautzen dira. Industrias Dimo SA enpresak era horretako substantziarik badu, substantzia horiek bildu eta suntsitu egingo dira aldeek erabakitako bide teknikoak erabiliz edota ingurumen ikuspuntutik onar daitekeen suntsiketarako beste edozein bide erabiliz; hondakin horiek birziklatu edo birsortu egingo dira bestela, aparailuak aztertu eta mantentzeko lanen aurretik nahiz desmuntatu eta suntsitu baino lehen.

j) Industrias Dimo SA enpresak urtero adierazi beharko dio Ingurumen Sailburuordetzari ekitaldi bakoitzean sortu dituen hondakin arriskutsu guztien jatorria, kopurua, helmuga eta aldi baterako biltegiratuta dauden hondakinen zerrenda.

k) Erregistro bat edukiko du, hondakin arriskutsuei buruzko datu hauek agerrarazteko: kopurua, izaera, identifikazio-kodea, jatorria, tratatzeko metodo eta tokiak, sorrera- eta lagapen-datak, biltzeko maiztasuna eta garraiatzeko modua, uztailaren 20ko 833/1988 Errege Dekretuaren 17. artikuluan ezarritakoa betez, eta uztailaren 20ko 952/1997 Errege Dekretuaren bidezko aldaketan ezarritakoa betez. Sei hilean behin, IKS-L03 Sistemaren erakundeentzako bertsioa erabiliz, Ingurumen Sailburuordetzari kontrolerako erregistro horren kopia bidaliko dio.

l) Hondakin arriskutsuen kudeaketako funtsezko oinarriak bete daitezen, hau da, hondakin horiek ahal den gutxiena sortzeko, Industrias Dimo SA enpresak neurri babesleak erabiliz hondakin arriskutsuen sorrera gutxitzeko plana egin eta aurkeztu beharko du Ingurumen Sailburuordetza honetan, gutxienez lau urtean behin.

m) Aurreko e eta f (kudeatzaileak EAEn daudenean), j eta k ataletan adierazitako agiriak Ingurumen Sailburuordetzara bidaliko dira, ahal dela transakzio elektroniko bidez, IKS-L03 Sistemaren erakundeentzako bertsioa erabilita.

n) Amiantoa duten hondakinak antzemanez gero, Industrias Dimo SA enpresak amiantoak ingurumenean sortzen duen kutsadura saihestu eta gutxitzeari buruzko 108/1991 Errege Dekretuan (3. artikulua) ezarritako eskakizunak bete beharko ditu. Era berean, amiantoa duten hondakinak kudeatzeko egingo diren manipulazioak 396/2006 Errege Dekretuan ezarritako aginduen arabera burutuko dira; dekretu horren bidez ezarri ziren amiantoarekin lan egiterakoan segurtasun eta osasun arloan bete behar diren gutxieneko baldintzak.

B.1.3.2.– Hondakin ez-arriskutsuak:

Sustatzaileak adierazitako hondakin ez-arriskutsuak hauek dira:

Hondakinaren izena	EHZ kodea	Zein prozesuri lotuta	Zenbatetsitako ekoizpena
Toner-kartutxoak	080318	Bulegoa	17 unitate/urtean
Kartoia	150101	Bulegoak/enbalajeak	500 kg./urtean
Plastikoak	150102	Enbalajeak	-
Paletak eta zura	150103	Enbalajeak	Noizean behin
Obra-hondakinak	170107	Mantentze-lanak	Noizean behin
Papera	200101	Bulegoak	500 kg./urtean
Metalezko txatarrak	200140	Ekoizpen-prozesua	60.000 kg./urtean
Hiriko hondakinekin bateratu daitezkeen hondakinak	200301	Zerbitzu Orokorrak	-

Sustatzaileak sortutako hondakin ez-arriskutsu hauen kantitatea aurkeztu beharko du: plastikoak eta hiriko hondakinekin bateratu daitezkeen hondakinak.

a) B.1.3. atalean bereiztearen eta hondakinen kudeaketari buruzko printzipio hierarkikoen inguruan xedatutakoari jarraituz, «nahasketak» izeneko hondakinak ezingo du baliotu daitekeen hondakin-frakziorik izan. Horri dagokionez, egungo egoeran Euskal Autonomia Erkidegoan baliotu daitezkeen hondakin-frakzioak hauek dira: papera eta kartoia, zura, plastikoak, metal ferrikoak eta metal ez-ferrikoak.

b) Erabilitako ontziak eta ontzi-hondakinak gaika behar bezala bereizi eta eragile ekonomiko bati emango zaizkio (hornitzaileari), erabilitako ontzien kasuan berriro erabili ahal izateko; ontzi-hondakinak, berriz, berreskuratzaile, birziklatzaile edo balioztagune baimendu bati.

c) Hondakin horiek ezabatzeko direnean ezin dira urtebete baino gehiagoz biltegiratuta eduki. Hondakinen azken helburua baliotzea denean, 2 urtez gorde ahal izango dira.

d) Oro har, hondakinak hustu aurretik, kudeatzaile baimendu batek onartzen dituelako agiria izan beharko dute, onarpen horretarako baldintzak zehaztuta. Agiri horren kopia bidali beharko da Ingurumen Sailburuordetzara, proposatutako kudeaketa egokia dela eta Ebazpen honetan ezarritako oinarrizko printzipioak betetzen direla egiaztatzeko. Hala badagokio, arrazoitu egin beharko da proposatutako kudeaketa-modua Ebazpen honetako hondakinen kudeaketari buruzko printzipio hierarkikoei egokitzen zaiela. Industrias Dimo SA enpresak artxibategian erregistratu eta gorde beharko ditu onarpen-agiriak edo horien agiri ofizial baliokideak, horiek aginduzkoak direnean, bost urtean gutxienez.

e) Halaber, hondakin geldo eta geldoarazien kudeaketari buruzko azaroaren 2ko 423/1994 Dekretuarekin bat etorriz, hondakin ez-arriskutsuak zabortegi baimendu batera eraman aurretik, jarraipenerako eta kontrolerako dagokion agiria bete beharko da. Agiri horiek bost urtez gorde beharko dira.

f) Erregistro bat egingo da, hondakin arriskutsuei buruzko datu hauek agerrarazteko: kopurua, izaera, identifikazio-kodea, jatorria, tratatzeko metodo eta tokiak, sorrera– eta lagapen-datak, biltzeko maiztasuna eta garraiatzeko modua. Urtero, Ingurumen Sailburuordetzari bidaliko zaio kontrolerako erregistro horren kopia.

g) Aurreko d eta e (kudeatzaileak EAEn daudenean) eta f ataletan adierazitako agiriak Ingurumen Sailburuordetzara bidaliko dira, ahal dela transakzio elektroniko bidez, IKS-L03 Sistemaren erakundeentzako bertsioa erabilita.

B.1.4.– Lurzorua babesteko baldintzak.

Urtarrilaren 14ko 9/2005 Errege Dekretuan eta otsailaren 4ko 1/2005 Legean ezarritako agindua betez lurzoruaren egoerari buruz aurkeztutako aurretiazko txostenean jasota dauden gomendioen arabera, Industrias Dimo SA enpresak araztegiaren andeletan (sotoa) sortu ohi diren ihesak konpondu beharko ditu.

B.1.5.– Zaratari buruzko baldintzak.

Gasteizko udaletxearen «Zaratak eta bibrazioak arautzeko Udal Ordenantza»-k ezarritako ondorengo mailak ez gainditzeko beharrezko neurriak hartuko dira:

a) Jarduera maila hauei egokitu behar zaie: etxebizitzen barrualdean entzungo den zarata ezin izango da inoiz ere 37 dB (A) baino handiagoa izan Leq 60 segundo etengabeko balioan neurtuta, 08:00ak eta 22:00ak bitartean, leiho eta ateak itxita, ezta 45 dB (A) ere gehienezko balioetan.

b) Jarduera maila hauei egokitu behar zaie: etxebizitzen barrualdean entzungo den zarata ezin izango da inoiz ere 27 dB (A) baino handiagoa izan Leq 60 segundo etengabeko balioan neurtuta, 22:00ak eta 08:00ak bitartean, leiho eta ateak itxita, ezta 45 eta 35 dB (A) ere gehienezko balioetan.

c) Era berean, zarata ezin da 60 dB (A) baino handiagoa izan, Leq 60 segundo etengabeko balioan neurtuta, industria-eremuaren kanpoko itxituran.

d) Zamalanetan eta materiala kamioietan garraiatzean egiten den zaratak ez du handituko sentsibilitate akustiko handieneko guneetako zarata-maila.

C) Ingurumena Zaintzeko Programa.

Ingurumena zaintzeko programa sustatzaileak aurkeztutako agirietan aurreikusitakoaren eta ondoko atal hauetan ezarritakoaren arabera gauzatu beharko da:

C.1.– Atmosferako isurtzeak kontrolatzea.

Industrias Dimo SA enpresak isurtzeak ondorengoaren arabera kontrolatu beharko ditu:

Fokua	Foku-kodea	Fokuaren izena	Neurtu beharreko parametroak	Kontrolen maiztasuna
1	1002284-01	Kataforesia (I bastidorea). I polimerizazioa	Nitrogeno oxidoak (NO_x) Karbono monoxidoa (CO) Karbono Organikoaren Guztizkoa (KOG) Guztizko partikulak (PT)	3 urtean behin
2	1002284-02	Kataforesia (I bastidorea). II polimerizazioa	Nitrogeno oxidoak (NO_x) Karbono monoxidoa (CO) Karbono Organikoaren Guztizkoa (KOG) Guztizko partikulak (PT)	3 urtean behin
3	1002284-03	Kataforesia (I bastidorea). III polimerizazioa	Nitrogeno oxidoak (NO_x) Karbono monoxidoa (CO) Karbono Organikoaren Guztizkoa (KOG) Guztizko partikulak (PT)	3 urtean behin
4	1002284-04	Kataforesia (I bastidorea). IV polimerizazioa	Nitrogeno oxidoak (NO_x) Karbono monoxidoa (CO) Karbono Organikoaren Guztizkoa (KOG) Guztizko partikulak (PT)	3 urtean behin
5	1002284-05	Kataforesia (I bastidorea). Hautsezko pintaketa	Guztizko partikulak (PT) Karbono Organikoaren Guztizkoa (KOG)	3 urtean behin
6	1002284-06	Kataforesia Autoforesia Polimerizazioa	Nitrogeno oxidoak (NO_x) Karbono monoxidoa (CO) Karbono Organikoaren Guztizkoa (KOG) Guztizko partikulak (PT)	3 urtean behin
7	1002284-07	Kataforesi jarraikia koipegabetzea	Karbono Organikoaren Guztizkoa (KOG) Guztizko partikulak (PT)	5 urtean behin
8	1002284-08	Kataforesi jarraikia fosfatatzea	Guztizko partikulak (PT) Nikela (Ni) Zinka (Zn)	5 urtean behin
9	1002284-09	Kataforesi jarraikia polimerizazioa	Nitrogeno oxidoak (NO_x) Karbono monoxidoa (CO) Karbono Organikoaren Guztizkoa (KOG) Guztizko partikulak (PT)	3 urtean behin
10	1002284-10	Desugertzea	Karbono Organikoaren Guztizkoa (KOG) Guztizko partikulak (PT)	5 urtean behin
11	1002284-11	Lurrun-galdara	Nitrogeno oxidoak (NO_x) Karbono monoxidoa (CO)	5 urtean behin
12	1002284-12	Zink-nikel lerroa	Zinka (Zn) Nikela (Ni) Guztizko kromoa (Cr_T) Karbono Organikoaren Guztizkoa (KOG) Guztizko partikulak (PT) SO_x SO_2 bezala neurtua Nitrogeno oxidoak (NO_x) Azido klorhidrikoa (HCl)	5 urtean behin

a) Aurreko atalean aipatutako neurketa guztiak baimendutako kontrol erakunde (BKE) batek egin beharko ditu (zortzi ordutan hartutako hiru neurketa, gutxienez ordubetekoa bakoitza), eta aldizkako kontrol horiei buruzko txostenak Ingurumen Sailburuordetza honek prestatutako «BKEen gutxieneko txostenean» ezarritakora egokitu beharko du. Nolanahi ere, isurtzeen kontrolek eta neurketa-baldintzek Ingurumen Sailburuordetzaren jarraibide teknikoetan eskatutako baldintza guztiak bete beharko dituzte.

b) Arestian eskatutako parametro guztien neurketen BKE txostenak bidaliko dira. Neurketa berriak egin beharko dira, baldin eta parametroen neurketarik ez badago edo egindako neurketak Ebazpen honetan kontrol-maiztasuna ezarri aurretik egindakoak badira. Atmosferara egiten diren isurtzeen ondorengo kontrolak, egindako azken neurketarekiko adierazitako maiztasunarekin egingo dira.

c) Zenbait jardueratan disolbatzaileak erabiltzeagatik sortzen diren konposatu organiko hegazkorren isurtzeak murrizteko urtarrilaren 31ko 117/2003 Errege Dekretuan ezarritakoa bete beharko da. Xede horretarako, Ingurumen Sailburuordetzak eskatzen duen informazioa aurkeztu beharko da.

C.1.1.– Lortutako emaitzen erregistroa.

Erregistro bat egin beharko da euskarri informatikoan edo, horrelakorik ezean, paperean. Dokumentazio gaurkotua erabilita gauzatuko da erregistroa, eta industriak atmosferan sortzen duen kutsadura saihestu eta zuzentzeari buruzko 1976ko urriaren 18ko Aginduak 33. artikuluan ezarritako edukia jaso beharko du. Erregistro horretan adieraziko dira egindako neurketen emaitzak, mantentze-lanak, garbiketa, aldizkako ikuskatzeak, matxuraren ondorioz gertatutako etenaldiak, egiaztapenak, edozein motako gorabeherak, eta abar. Dokumentazio hori eguneratuta egongo da, eta ingurumen-ikuskatzaileek eskuragarri izango dute.

C.2.– Isuritako uraren kalitatea kontrolatzea.

Nahitaezkoa da ur tratatua neurtzeko pH-neurgailu jarraiki bat eta isuritako uren emari-neurgailu bat izatea, neurketaren tokiko adierazlea, beharrezko bi puntutan alarmak eta datu historikoak gordetzeko eta kudeatzeko sistema informatizatua dutenak. Horiek Administrazioaren esku egon beharko dute gainera.

a) Sustatzaileak aurkeztu dituen agirien arabera, ondorengo analisiak egingo dira:

Isurketa-puntua	Kontrolatu beharreko fluxua	Neurtu beharreko parametroak	Kontrolen maiztasuna	Kontrol-mota
PV1	Industria-urak	pH	Hiru hilero	Kanpo-kontrola
		Oxigeno-eskari kimikoa (OEK)	Hamabost egunero	Autokontrola
			Hiru hilero	Kanpo-kontrola
		Gai esekiak (MES)	Hamabost egunero	Autokontrola
			Hiru hilero	Kanpo-kontrola
		Olio eta koipeak (A eta G)	Hamabost egunero	Autokontrola
			Hiru hilero	Kanpo-kontrola
		Kloruroak	Hiru hilero	Kanpo-kontrola
		Fosfatoak	Hiru hilero	Kanpo-kontrola
		Burdina (Fe)	Egunero	Autokontrola
			Hiru hilero	Kanpo-kontrola
		Guztizko kromoa (Cr_{TOTAL})	Egunero	Autokontrola
			Hiru hilero	Kanpo-kontrola
		Kromo hexabalentea (Cr VI)	Egunero	Autokontrola
			Hiru hilero	Kanpo-kontrola
		Nikela (Ni)	Egunero	Autokontrola
			Hiru hilero	Kanpo-kontrola
		Guztizko fosforoa	Hiru hilero	Kanpo-kontrola
		Guztizko nitrogenoa	Hiru hilero	Kanpo-kontrola
		Aluminioa (Al)	Hiru hilero	Kanpo-kontrola
		Guztizko kadmioa (Cd)	Hiru hilero	Kanpo-kontrola
		Guztizko kobrea (Cu)	Hiru hilero	Kanpo-kontrola
		Manganesoa (Mn)	Hiru hilero	Kanpo-kontrola
		Guztizko zinka (Zn)	Hiru hilero	Kanpo-kontrola
		Eztainua (Sn)	Hiru hilero	Kanpo-kontrola
		Boroa (B)	Hiru hilero	Kanpo-kontrola
		pH, emaria	Jarraikia	Autokontrola

Sustatzaileak isurketak kontrolatzeko kutxetaren UTM koordenatuak adierazi behar ditu.

b) Kanpoan egiten den kontrol bakoitza, laginak hartzea nola ondorengo analisia, «Erakunde Laguntzaile» batek egin eta egiaztatuko du, eta goian aipatutako parametroak hartuko dira kontuan. Sustatzaileak isurketa-puntu bakoitzeko lagin hartu berri baten analisia aurkeztu beharko du gutxienez; lagina 24 orduko ur-emariarekiko proportzionala izango da, edo bestela, lagin puntual esanguratsua.

Isurketen kontrolen emaitzak Ingurumen Sailburuordetzara bidaliko dira laginak hartzen direnetik hilabeteko epean.

c) Laginketak kutsatzaile gehien sortzen den aldietan egingo dira beti.

C.3.– Jardueraren adierazleak kontrolatzea.

Sustatzaileak jardueraren gaineko ondorengo parametro adierazleen jarraipena egingo du urtero, ingurumenean duten eragina aztertzeko:

Adierazlea	Unitatea
Produktu kimikoen kontsumoa	Kg produktu kimiko/ urteko fakturazioa
Bainuetan kontsumitzen den ura	M^3 / fakturazioa
Bainuetan kontsumitzen den gas naturala	M^3 / fakturazioa
Hondakin arriskutsuak sortzea	Kg hondakin arriskutsu/ fakturazioa

Sustatzaileak aurreko taula osatu beharko du, bere jardueraren ohiko adierazleak sartuz.

C.4.– Zarataren kontrola.

Enpresak aurki kanpoko zarata eta bibrazioak neurtzeko asmoa du eta horren ondorioz, aurkeztutako agirien arabera neurketa-txostenak adieraziko dituen foku esanguratsuenei lotutako zarataren eragin negatiboak arintzeko gehitu diren neurri teknikoen baliotasuna ziurtatuko da.

Jarduera garatzen den lursaileko kanpoko baldintza akustikoak hiru urtean behin kontrolatuko dira, batez ere zarata etxe barruetara sartzeko arriskurik handiena dagoen aldeetan. Kontroleko lehen urtean izandako emaitzen arabera erabakiko da aurrerantzean neurketak urtero egin ala ez.

Enpresak neurketen proposamen zehatz bat landu beharko du eta neurketa-metodo zehatzak adierazi bertan. Proposamen hori Ebazpen honetako C.6 atalean aipatzen den Ingurumena Zaintzeko Programako testu bateginarekin batera aurkeztuko da.

C.5.– Emaitzak kontrolatu eta bidaltzea.

Ingurumena zaintzeko programa osatzen duten analisi eta txostenen emaitzak behar bezala erregistratuko dira, eta Ingurumen Sailburuordetzara bidaliko dira. Ingurumena zaintzeko programaren emaitzak urtean behin bidaliko dira, beti martxoaren 30a baino lehen, ingurumenean aditua den erakunde aske batek egindako txostenarekin batera. Txosten horretan adieraziko dira neurri zuzentzaileen funtzionamendua, eta prozesuak eta ingurunearen kalitatea kontrolatzeko sistemak. Emaitzen analisia ere adieraziko da, eta bereziki aipatuko dira aldi horretan gertatu diren gorabehera garrantzitsuenak, horien ustezko arrazoiak eta konponbideak, eta baita laginketen xehetasunak ere, aurretik zehaztu ez baldin badira.

Isuritako uraren kalitatearen kontrolari buruzko emaitzak, gainera, hiru hilean behin bidaliko dira Uraren Euskal Agentziara (Arabako Ordezkaritza).

C.6.– Ingurumena Zaintzeko Programari buruzko agiri bategina.

Sustatzaileak ingurumena zaintzeko programaren agiri bategina landu beharko du, aurkeztu dituen agirietan eta Ebazpen honetan proposatutako betekizunak bilduz. Programa horrek hauek zehaztu beharko ditu: kontrolatu beharreko parametroak, parametro bakoitzerako erreferentzia-mailak, analisi edo neurketen maiztasuna, laginketak edo analisiak egiteko teknikak, eta laginak hartzeko guneen kokapen xehatua. Halaber, dagokion aurrekontua xehatuta barne hartu beharko du.

Era berean, ingurumena zaintzeko programak jardueraren adierazleak zehaztu eta adierazle horiek aztertzeko sistematika barruan izan beharko du, horien arabera enpresan bertan ingurumen-hobekuntza ziurtatzearren ezarritako neurri eta mekanismoen eraginkortasuna egiaztatu ahal izateko (ingurumen-adierazleak).

D) Ezohiko egoeretarako prebentziozko neurriak eta jardunerako baldintzak.

D.1.– Fabrika gelditzeko eta abiarazteko eragiketak eta mantentze-lanetarako programatutako eragiketak.

Programatutako urteko mantentze-lanei dagokienez, botako diren kutsagarriak eta sortuko diren hondakinen balioespena egin beharko du enpresak, eta dagokionean, horiek kudeatzeko eta tratatzeko proposamena ere.

D.2.– Jarduera uztea.

Jarduera lege hauen aplikazio-esparrukoa da: lurzorua ez kutsatzeko eta kutsatutakoa garbitzeko otsailaren 4ko 1/2005 Legea (28.510 epigrafea «Metalen tratamendua eta estaldura»), eta kutsadura sor dezaketen jardueren zerrenda eta lurzoru kutsatuen adierazpenerako irizpide zein estandarrak ezartzen dituen urtarrilaren 14ko 9/2005 Errege Dekretua. Hori dela-eta, Industrias Dimo SA enpresak hasiera eman beharko dio lurzoruaren kalitatearen adierazpenerako prozedurari, gehienez ere bi hilabeteko epean, jarduera behin betiko uzten duenetik kontatzen hasita, otsailaren 4ko 1/2005 Legeak 17.4 artikuluan xedatutakoaren arabera.

D.3.– Ezohiko jardunean aplikatzeko neurriak eta jarduerak.

Sustatzaileak aurkeztutako agirietan jasotako proposamenean ezohiko egoeretan aplikatu beharreko prebentziozko neurriak eta jardunerako baldintzak zehazten dira. Horiez gain, ondorengo ataletan aipatzen diren baldintzak bete behar dira:

a) Prebentziozko mantentze-lanen eskuliburua eduki beharko da instalazioen egoera bermatzeko, batez ere ustekabeko isuri edo ihesak daudenean kutsadura ekiditeko eskuragarri dauden baliabideei dagokienez. Ihesak daudenean lurzorua babesteko hartu beharreko neurriak zehaztuko dira, eta zehatz adieraziko da hauei dagokien guztia: eraikuntzako materialak (iragazgaiztea), biltegiratzeko neurri bereziak (gai arriskutsuak), egon daitezkeen ihesak antzemateko neurriak edo gainbetetzerako alarma-sistemak, lantegiko kolektore-sarea zaindu eta garbitzekoak (sistematikoki garbitzeko beharra, maiztasuna, garbiketa mota), eta lurzoruaren gaineko isuriak biltzeko sistemak.

b) Aurreko paragrafoan adierazitako eskuliburuak ikuskaritza eta kontrolerako programa jaso beharko du, hauek bilduko dituena: estankotasun-probak, mailen eta adierazleen egoera, balbulak, presioa arintzeko sistema, hormen egoera eta lodieren neurketa, andelen barnealdearen begi-bidezko ikuskaritzak (hormena eta estaldurena) eta kubetetako detekzio-sistemen aldizkako kontrol sistematikoa, lurzorua kutsa dezakeen edozein egoerari aurrea hartzeko.

c) Goian aipatutako prebentziozko mantentze-lanen eskuliburuan, atmosferaren kutsadurari aurrea hartzeko eta zuzentzeko (arazketa, minimizazioa, eta abar) sistemen egoera ona bermatuko duten neurriak gehituko dira.

d) Era berean, erregistro bat eduki behar da, eta bertan, aldizka egindako mantentze-lanen berri eman behar da, baita antzemandako gorabeherena ere.

e) Besteak beste, produktu kimikoak, hondakin-urak araztearen hondakinak, eta abar maneiatzeak lurzorua eta ura kutsa dezake. Beraz, isuriak, jarioak edo ihesak gertatzeko arriskua izan dezaketen azalera guztiak iragazgaiztuko dira.

f) Prozesurako behar diren lehengaiak, erregaiak eta produktuak ingurunean ez sakabanatzeko moduan biltegiratuko dira.

g) Segurtasun-tarteei eta babes-neurriei dagokienez, egiaztatu egin beharko da biltegiratzeko instalazio horiek bete egiten dituztela produktu kimikoak biltegiratzeari buruz indarrean dagoen araudian ezarritako betebeharrak. Egiaztapen hori egiteko, Ingurumen Sailburuordetza honi aurkeztuko zaizkio eskumena duten erakundeek emandako egiaztagiriak.

h) Larrialdi-egoera sortzen denean, berehala eta eraginkortasunez jarduteko behar beste material eduki behar da: berriro ontziratzeko erreserbako edukiontziak, beharrezkoa izanez gero; gerta daitezkeen isuriei eusteko produktu xurgatzaile selektiboak, segurtasuneko edukiontziak, hesiak eta kaltetutako ingurunea isolatzeko seinaleztapen-elementuak eta babes pertsonalerako ekipamendu bereziak.

i) Ingurumen Sailburuordetzara bidaliko da kubetak husteko eragiketak kontrolatzeko protokolo edo agiri bidezko prozedura; eraginkortasunean eragin dezaketen produktuen jarioak ez dira tratamenduko instalaziora eramango.

j) Nabeen barruan zolak garbitzean sortutako ura tratamendu-lerrora bidaliko da.

k) Arazte-prozesuan pilatutako hondakin solidoak eta lohiak aldizka aterako dira instalazioa behar bezala ibil dadin. Behar izanez gero, gordailu iragazgaitzetan eta hondoan hustubiderik ez dutenetan gordeko dira.

l) Inoiz ez dira pilatuko euri-uren jariatzearen ondorioz ibilgu publikoko ura kutsatzeko arriskua egon daitekeen guneetan.

m) Lohien tratamenduko instalazioetan xukatutako ura arazketa-instalazioaren sarrerara birzirkulatuko da, bertan tratatzeko.

n) Larrialdi-egoeretan, babes zibileko legeriari helduko zaio, eta bertan ezarritako betekizun guzti-guztiak bete beharko dira.

o) Titularrak behar diren bitartekoak izango ditu arazketa-instalazioak zuzen ustiatzeko eta ustekabeko isuriak prebenitzeko hartu diren segurtasun-neurriak abian izateko. Kasu honetan, honako baldintza hauek azpimarratu behar dira:

Berme-neurri gisa, pH eta redox-aren zunda bikoitza eduki behar da, eta arazte-prozesuko puntu kritikoetan izaten diren kontsigna-puntuen desbideratzeei dagozkien alarmak jarri.

Araztegia ustiatzeko enpresa espezializatu batek egindako protokolo edo eskuliburu bat izango da nahitaez, eta ekipo elektromekaniko, zunda, mintz, dosifikatu eta kontrolatzeko tresna eta abarren azterketa eta mantentze-lanak finkatuko dira bertan.

Era berean, erregistro bat eduki behar da, eta bertan, aldizka egindako mantentze-lanen berri eman behar da, baita antzemandako gorabeherena ere.

Prebentziozko mantentze-lanen eskuliburua eduki beharko da instalazioen egoera bermatzeko, batez ere ustekabeko isuri edo ihesak daudenean kutsadura ekiditeko eskuragarri dauden baliabideei dagokienez.

Gainera, nahitaez kontratu bat sinatzea eskatzen da araztegiaren mantentze-lanetarako, eta prozesuaren, errendimendu eta arazketaren, ekipo elektromekaniko eta sentsoreen funtzionamendu egokia ikuskatzeko.

Hondakin-ura ezingo da «by pass» bidez isuri arazketa-instalazioetan.

p) Ingurunearen edo jardueraren kontrolaren gainean kalteak eragin ditzakeen gorabehera edo ezohiko gertaeraren baten aurrean (besteak beste, ezbeharrez gertatzen diren isurketak, kontrolik gabeko isurketak), gorabehera edo ezohiko gertaera horren berri eman beharko dio berehala Ingurumen Sailburuordetzari.

q) Gertakari edo arazo larriren bat edo atmosferara ustekabeko isuriren bat eginez gero, Ingurumen Sailburuordetzari jakinarazteaz gain, SOS Deiak eta Udalari ere jakinarazi beharko zaie berehala. Ondoren, eta gehienez ere 18 orduko epean, ezbeharrari buruzko txosten xehatua bidali beharko da Ingurumen Sailburuordetzara. Txosten horretan, gutxienez, honako datu hauek agertuko dira:

– gertakari mota.

– gertakaria non, zergatik eta zer ordutan gertatu den.

– Iraupena.

– ustekabeko isuria bada, emaria eta isuritako gaiak.

– mugak gaindituz gero, isurtzeei buruzko datuak.

– eragindako kalteen balioespena.

– berriro gerta ez dadin aurreikusitako neurriak.

– prebentzio-neurriak eraginkortasunez aplikatzeko ezarritako epeak.

r) Instalazioek suteen aurkako babesari buruz indarrean dagoen araudian ezarritako betekizunak betetzen dituztela egiaztatu beharko da. Egiaztapen hori egiteko, Ingurumen Sailburuordetza honi aurkeztuko zaizkio eskumena duten erakundeek emandako egiaztagiriak.

E) Baldin eta arautegi berria indarrean sartzeak, edo barneratzen diren sistemen egitura eta funtzionamenduari buruzko ezagutza berri esanguratsuetara egokitu beharrak hala egitera bagaramatza, neurri babesle zein zuzentzaileak eta ingurumena zaintzeko programa aldarazi ahal izango dira, bai neurtu behar diren parametroen kasuan, baita neurketaren aldizkakotasuna eta aipatutako parametroek hartu behar duten tarteari dagozkion mugen kasuan ere. Era berean, neurri babesle zein zuzentzaileak eta ingurumena zaintzeko programa, jardueraren sustatzaileak hala eskatuta, edo ofizioz, aldaraz daitezke, ingurumena zaintzeko programan lortutako emaitzetan oinarrituta.

F) Urtean behin Industrias Dimo SA enpresak Ingurumen Sailburuordetzari jakinaraziko dizkio atmosferara botatako kutsagarriei, uretara egindako isurketei eta sortu dituen hondakinei buruzko

datuak, E-PRTR-Euskadi, botatako eta eskualdatutako kutsagarrien Europako Inbentarioa landu eta eguneratzeko, E-PRTR Araudiko eta ingurumeneko baimen bateratuetako isurketen gaineko informazioa ematea arautzen duen apirilaren 20ko 508/2007 Errege Dekretuari jarraituz.

Informazio hori ekitaldi horren hurrengo martxoaren 31 baino lehen bidali beharko da. Informazioa Ingurumenari buruzko Adierazpenaren (IA) bidez gauzatuko da, hori baita kanpoko erakundeek eta Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailak ingurumen-informazioa batak besteari elektronikoki emateko ardatza. Informazio-trukaketa horren funtsa Ingurumenari buruzko Adierazpenari (IA) dagozkion ingurumeneko datu teknikoak eta prozedurakoak sartzean datza, IKS-L03 Sistemako erakundeentzako bertsioaren bidez (www.eper-euskadi.net web-orrian eskuragarri): Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Saileko Ingurumen-informazioa Kudeatzeko Sistema. Datu horiek guztiek Ingurumenean Eragina duten Jardueren Euskal Autonomia Erkidegoko Erregistroa osatuko dute, Europako Ingurumen Agentziaren Erregistrora (Europako E-PRTR Erregistroa) egiten diren informazio-bidalketen oinarri dena.

Halaber, Ebazpen honetan aurreikusitako gainerako informazio-trukeak aipatutako Ingurumenari buruzko Adierazpenaren bidez gauzatuko dira, ahal izanez gero.

Informazio hori agerikoa izango da, uztailaren 18ko 27/2006 Legearen xedapenekin bat etorriz. Lege horren bidez informazioa eskuragarri izateko, herritarren partaidetzarako eta ingurumen-gaietan justizia eskura izateko eskubideak arautzen dira (2003/4/EE eta 2003/2005/EE Zuzentarauak jasotzen ditu). Horrez gain, uneoro bermatu beharko da datu pertsonalak babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan ezarritakoa betetzen dela.

G) 2007ko apirilaren 21eko 509/2007 Errege Dekretuaren 4. artikuluko 3. atalari jarraituz, lehendik dauden instalazioen titularrek agintaritzari jakinarazi beharko diote instalazio horietan erabiltzen eta ekoizten diren substantziek, 1907/2006 EE araudian aurreikusitako erregistratu eta ebaluatzeko prozesuan identifikatu direnak, giza osasunerako eta ingurumenerako izan dezaketen arriskua.

H) Ingurumeneko baimen bateratu honen eraginpeko instalazioan egindako aldaketek bat etorri beharko dute uztailaren 1eko 16/2002 Legeak 10.3 artikuluan ezarritako komunikazio-erregimenarekin. Hori horrela, ingurumeneko beste baimen bateratu bat beharko da aldaketak funtsezkoak direnean.

Hirugarrena.– Ebazpen hau eraginkorra izan dadin, aurretik Ingurumen Sailburuordetzari agiri bidez egiaztatu beharko zaio Ebazpen honetako bigarren ataleko puntu hauetan ezarritako baldintzak betetzen direla: B.1.3.1.d eta B.1.3.2.d (hondakin arriskutsuen eta ez-arriskutsuen onarpen-agiriak); B.1.3.1.k eta B.1.3.2.f (hondakin arriskutsuen eta ez-arriskutsuen erregistro-eredua); B.1.4 (lurzoruaren kalitatea babesteari buruzko baldintzak); C.1 (atmosferako isurtzeen kontrola); C.1.1 (Isurtze atmosferikoen erregistro-eredua); C.2 (pH-neurgailu eta emari-neurgailu jarraikia ezartzea); C.4 (zarataren kontrola); C.6 (Ingurumena Zaintzeko Programaren agiri bategina); D.1 (isurtzeen eta hondakinen balioespena mantentze-lanetan); D.3.a (prebentziozko mantentze-lanen eskuliburua); D.3.g (produktu kimikoen biltegiratzeen ziurtagiriak); D.3.h (larrialdi-kasuetarako materialen zerrenda); D.3.i (kubetak husteko maniobraren prozedura) eta D.3.r (suteen aurkako babeserako neurriak).

Halaber, baimen hau indarrean jarri aurretik, ingurumen organo honi atxikitako zerbitzu teknikoen ikuskaritza-bisitan egiaztatu beharko da instalazioak aurkeztutako proiektuaren arabera eta Ebazpen honetan ezarritakoarekin bat etorrita eraiki eta hornitu direla. Horretarako, aipatutako ikuskaritza-bisitaren aurretik, sustatzaileak Ingurumen Sailburuordetza honetan aurkeztu beharko du baldintza horiek betetzen direla egiaztatzen duen agiria, teknikari aditu batek eginda.

Goiko baldintza horiek guztiak betetzeko 6 hilabeteko epea ezarri da, ingurumeneko baimen bateratua eraginkorra dela adierazteko Ingurumen Sailburuordetzak emandako Ebazpen hau jakinarazten den biharamunetik kontatzen hasita.

Adierazitako baldintzak betetzen direla ziurtatzean, ebazpena emango da eta, horren bitartez, ingurumeneko baimen bateratua eraginkortzat aitortuko da.

Laugarrena.– Ingurumeneko baimen bateratu hau 8 urteko epean egongo da indarrean, aurreko atalean ezarritakoaren arabera ondorioak dauzkan egunetik kontatzen hasita. Epe hori igarota, baimena berritu egin beharko da eta, hala badagokio, jarraian datozen aldietarako eguneratu.

Ingurumeneko baimen bateratua amaitu baino hamar hilabete lehenago, titularrak baimena berritzeko eskaera egin beharko du, uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 25. artikuluan xedatutakoa betez.

Bosgarrena.– Edonola ere, ingurumeneko baimen bateratua ofizioz aldatu ahal izango da uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 26. artikuluan ezarritako kasuak aintzat hartuta.

Seigarrena.– Ebazpen honen xede den kataforesi, autoforesi eta zink-nikelaren bidez pintaketa oinarri duten azal-tratamenduen jarduerari dagokionez titulartasun-aldaketarik izanez gero, Industrias Dimo SA enpresak aldaketa horiek jakinarazi beharko ditu, Ingurumen Sailburuordetzak onar ditzan.

Zazpigarrena.– Baimen honek balioa galduko du kausa hauek gertatzen direnean:

– Epearen barruan ez egiaztatzea Ebazpen honetako hirugarren atalean ingurumeneko baimen bateratuak ondorioak izan ditzan ezarritako baldintzak betetzen direla, interesdunak behar bezala justifikatuz epea luzatzeko eskatzen ez badu.

– Industrias Dimo SA enpresaren nortasun juridikoa bukatzen bada, indarrean dagoen araudian ezarritako kasuetan.

– Baimena indarrean jartzen dela adierazten duen ebazpenean xedatutakoak.

Zortzigarrena.– Ebazpen honen edukia jakinaraztea Industrias Dimo SA enpresari, Gasteizko Udalari, ingurumeneko baimen bateratua emateko prozeduran parte hartu duten erakundeei, eta gainerako interesdunei.

Bederatzigarrena.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzeko agintzea.

Hamargarrena.– Ebazpen honek ez du agortzen administrazio-bidea; horrenbestez, interesdunek gora jotzeko errekurtsoa aurkez diezaiokete Ingurumen eta Lurralde Antolamenduko sailburuari, hilabeteko epean, Ebazpen hau jakinarazi eta hurrengo egunean kontatzen hasita, hori guztia Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 114. artikuluarekin eta ondorengoekin bat etorriz (urtarrilaren 13ko 4/1999 Legeak aldatu zuen lege hori).

Vitoria-Gasteiz, 2008ko martxoaren 25a.

Ingurumeneko sailburuordea,
IBON GALARRAGA GALLASTEGUI.